

Izoztutako enbrioiak, polemika-iturri berria

Izozturiko enbrioiak eta ernalketa-teknikak gero eta arruntagoak badira ere, hauen inguruko eztabaidak berean dirau. Oraingo honetan Frantziako Garapen Biologia ikerketa-taldearen aurkikuntzek sorrarazi dute polemika. Arratoiek egindako saiakuntzak oinarritzat harturik, izozturiko enbrioiak erabiliz lortutako aleek jokaera- eta erreazio-aldaketak izaten dituztela egiaztatu omen daiteke. Ikerlariek aurkeztutako txostenak dienez, aldaketa hauek ez dira berehala atzematen, epe motz edo ertainera nabariak badira ere. Erasorako joera handiagoa eta erreazio bortitzagoak izaten ei dituzte izoztutako enbrioien bidez jaiotako arratoiek. Ikerketaren datuak kaleratu orduko, giza-enbrioiekin antzeko alda-

ketarik gerta daitekeela zabaldu bada ere, albisteak ez du sinesgarritasun handirik lortu ikerlarien artean. Ernalketa-teknikek giza-genetan eragin ditzaketeen aldaketak ikertzen diharduen talde britainiarrek, esaterako, Frantziako azterketak egiaztatuko lituzkeen batzorde bat sortzeko eskatu du.

Kutsaturiko odola, berriro ere albiste

Transfusioetarako erabiltzen den odola makina bat buruhauste eragiten ari da mundu osoan. Frantziatik atzeman zuten odol-kutsadura kasua oraingoz nabarmenena bada ere, hori bezain larria edo larriagoak izan daitezkeen kasuak ezagutzen hasi dira jadanik. Larrietakoa Pakistanen atzemandakoa izan daiteke, bertako ospitaleetako odol-sartze ia gehienak bertan behera utzi behar

izan baitituzte. Aga Khan Unibertsitateko ikerlariek berriki ezagutzera eman dutenez, C hepatitisaren birusek odol-sartzerik jasotzen duten gaixoen % 6 kutsatuta dute. Kutsaduraren zergatia zein ote den argitzearik izan ez badute ere, odol-azterketa egiteak duen kostu ekonomikoa arrazoietako bat izan daitekeela diote. Pakistango ospitaleetan odolaren analisi xehetuak egiteko baliabiderik ez dago eta ondorioz, salbuespen kasuetan baino ez dira betetzen Nazioarteko Osasun Erakundeek odol-sartze guztietarako ezarri dituzten oinarritzko segurtasun-baldintzak.

Donostiara iritsi da dialisia erazten duen sistema

Ostailaren hasieran aurkeztu zuten Donostiako Arantzazuko Amaren Ospitalean HomeChoice izeneko dialisi-aparatua. Kanadatik ekarritako eredu da eta ospitaleko dialisi-tratamendu luzeak ordezkatu ahal izango dituela uste da. Sistema honen ekarpenik nagusia gaixoaren bizikaltatea hobetuko duen erabilgarritasuna da, etxean bertan eta gaixoa lotan dagoela burutzen baitu bere lana.

HomeChoice 11 kilotako dialisi-makina automatikoa da, erabilterraza, gainera. Giltzurrunek bere kaxa egiterik ez duten garbiketafuntzioa HomeChoice-k

pazientea lo dagoela burutzen du. Biharamunean, ohetik jeiki orduko, dialisi aparatuen monitore txikiak azalduko diren datuak behatu eta tentsioa neurtu baino ez du egin beharko.

HomeChoice aparatua peritoneoaren dialisi-kasuetan soilik erabil daiteke. Barrunbe abdominala eta barrunbeto organuak estaltzen dituen mintz serosoan zehar garbitzen dira odolaren ezpurutasunak, garbiketa-likidoa peritoneoan zehar iragazi eta odola hondakinez arazten duelarik.

Dialisi-teknika ospitaleetako makinek erabiltzen duten berbera da. Sistema berriaren abantaila, beraz, independentzian datza: gaixoak, egunez behinik behin, ahaztu ahal izango ditu ospitalean emandako ordu luzeak eta ohera sartzean bera izango da bere buruaren mediku eta arduraduna.

1994ko Osasun Txostean bildutako datuen arabera, Euskal Autonomi Erkarterean 1.600 lagun dago egoera honetan. Giltzurrun-transplantearen aukera inoiz baztertzen ez badute ere, ordezkotratamenduetara ohitu behar izaten dute. Gaixoen erdiak dialisi tratamendua jarraitasunez hartu behar izaten du. Hauetariko gehienek -640 inguruk- hemodialisia behar dute.



Izozturiko enbrioiak eta ernalketa-teknikak gero eta arruntagoak badira ere, hauen inguruko eztabaidak berean dirau.